

# **Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua**

**LAS VIÑAS HLHI**

# Aurkibidea

---

<b>1. Ikastetxeko testuinguruaren azterketa</b>	<b>3</b>
<b>2. Printzipioak, balioak eta nortasun-ezaugarriak</b>	<b>4</b>
<b>3. Helburuak</b>	<b>6</b>
<b>4. Curriculumaren eta antolamenduaren esparruetako aukerak</b>	<b>7</b>
<b>4.1. Curriculumaren esparrua</b>	
<i>4.1.1. Metodologia-aukerak</i>	7
<i>4.1.2. Ebaluazioa</i>	7
<i>4.1.3. Hezkuntza-eskaintza</i>	8
<i>4.1.4. Aniztasunari erantzutea</i>	9
<i>4.1.5. Orientabidea eta tutoretza</i>	9
<i>4.1.6. Hizkuntzen erabilera eta tratamendua</i>	9
<i>4.1.7. Prestakuntza eta berrikuntza</i>	10
<b>4.2. Antolamenduaren esparrua</b>	
<i>4.2.1. Ikastetxearen antolamendua, funtzionamendua eta kudeaketa</i>	11
<b>5. Iraunaldia</b>	<b>12</b>

## 1. Ikastetxeko testuinguruaren azterketa

---

Las Viñas HLHI Santurtziko erdigunean dago, Las Viñas izeneko auzoan, hain zuzen ere. Herria, Nerbioi ibaiaren itsasadarraren ezkerrean kokatuta dago.

Eskolak D ereduak bi lerro oso ditu bi eraikinetan bananduta: batean Lehen Hezkuntza eta ikasgela komunak ( liburutegia, jantokia, erabilera anitzeko gela, gimnasioa, informatika, laguntza gelak...) eta bestean, Haur Hezkuntza .

Herria erdalduna da eta ikastetxeko ikasle gehienak udalerrian edo inguruan jaiotakoak direnez, hauen euskararen erabiltze maila, orokorrean, baxua da. Familiei dagokienez, maila sozio-ekonomiko eta kulturala baxu-ertaina da,

Gure ikasleriaren aniztasuna handia da: gutxiengo etnikoak, hezkuntza-behar bereziak dituztenak eta etorkinak, ugariak dira.

Hau guztia kontutan hartuta, hauek dira gure ikastetxean agertzen diren arazo nabarmenenak: familien egoera sozio ekonomiko prekarioak, migratze-ibilera luzeak, eskolaratze-ezak edota eskolaratze berantiarak, familien eskolaratze prozesuarekiko itxaropen eta ardura falta eta, kasu askotan, eskolak familien aldetik espero dezakeen laguntza eskasa.

Hau dela eta, gure ikasleriaren parte batek ez dauka aukera handirik eskolaratze normalizatuan lortzen diren konpetentziak ondo bereganatzeko.

Gure eskolak duen errealitatea oinarri eta, ikasle guztien garapen osoa eta orekatua helburu, eskola bizia, parte hartzaile eta integratzaile bat eratu nahi dugu, pertsona orekatuak, zorientsuak eta konpetenteak lortzeko. Xede hori erdiesteko hauek dira, besteak beste, egitekoak:

- desberdintasunei aurre egiteko heziketa sustatu behar da, batez ere gizarte eta pertsonal egoera ahulak bizi dituzten haurrei arreta emateko eta ekitatea bilatzeko
- Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan elebitasun orekatua lortzeko baldintzak landu eta sustatu.

Azken helburua, errespetua eta askatasun balioak barneratuta dituzten pertsonak heztea da.

## 2. Printzipioak, baloreak eta nortasun-ezaugarriak

Gure hezkuntza-jarduera garatzeko, ondoren adierazten diren printzipioak jarraituko ditugu:

- **Publiko**

Gure herriaren eta gizartearen egoerari eta beharrei egokitutako hezkuntza-egitasmo propioa eskainiko duen ikastetxe publikoa gara, gure herriko hizkuntza eta kultur ondarea jaso eta hedatuko duena.

Euskal Eskola Publikoaren sareko kide garenez, bereizkeriarik gabeko gizarte-kohesioa, biztanle guztientzako aukera-berdintasuna eta jatorrizko desberdintasunak gainditzea izango da gure erronka.

Las Viñas eskolaren helburu nagusietako bat, ikasle guztiei erantzungo dien azpiegitura egokia ziurtatzea izango da. Ikastetxearen hezkuntza egitasmoa gauzatzeko, hau da, gure herriaren beharretara egokitzen den kalitatezko hezkuntza eskaintzeko, behar diren baliabide material zein giza baliabide guztiak lortzen ahaleginduko gara.

- **Inklusibo eta plurala**

Gure eskolak desberdintasun pertsonal eta kulturalen errespetua bermatuko du, eta desberdintasun sozio-ekonomikoen eta bestelakoek eskolatzean duten eragina gutxitzen eta behar bezala konpentsatzen ahaleginduko da.

- **Aniztasunaren integratzailea:**

Idea, portaera sozial, politiko, filosofiko eta erlijioso desberdinak errespetatuko dira, elkarbizitzaren kontra ez doazen heinean. Horretarako, aukera-berdintasuna, konpentsazioa, elkartasuna, lankidetzeta eta talde-lanetan oinarrituko gara, ekitatea eta ikaslearen garapen integrala lortzeko, norberaren gaitasunak garatuz.

Las Viñas eskolak inolako diskriminaziorik gabe beharrezkoak izango diren neurriak jarriko ditu martxan suerta daitezkeen desorekak konpentsatzeko.

- **Hezkidetzeta eta bizikidetzeta**

Nesken eta mutilen arteko harremanak hezkuntzako inguruan aberasgarriak dira oso, eta eskolaren lana inguru egokia eskaintzea izango da.

Sexuen arteko berdintasuna garatu nahi dugu, eta honen asmoarekin hizkuntza eta genero eredu sexistak baztertzen saiatuko gara.

Hezkidetzaren landuz, neska-mutilek giza heziketa osoa eta orekatua izango dute, generoaren estereotipoak gaindituz.

Giza-eskubideak eta oinarrizko baloreak garatuz (errespetua, elkartasuna, tolerantzia, justizia, onarpena) berdintasuneko harremanak sustatzen saiatuko gara.

- **Ekitatiboa, kalitatezkoa, aukera-berdintasunaren bermatzailea**

Proposatutako helburuak lortzeko, maila kultural, sozial eta ekonomiko desberdinetako ikasleei aukera berdinak eskainiko dizkiegu, inolako diskriminaziorik gabe. Horretarako behar diren neurriak martxan jarriko dira igartzen diren desorekak konpentsatzeko.

- **Euskalduna eta eleanitza.**

Gure eskola, euskararen eta euskal kulturaren transmisio, garapen, normalizazio eta sustapenarekin guztiz konprometituta dago. Euskal Herriko izaera, nortasuna eta kultur berezitasunak bereziki zaindu eta bultzatuko dira Las Viñas eskolan.

Era berean, gutxienez atzerriko hizkuntza batean oinarrizko komunikazio gaitasunak garatuko dira ikastetxean, ikasle eleanitza trebatzearen alde eginez

- **Parte-hartzailea eta demokratikoa**

Familiak, irakasle eta ikasleen parte hartzean eta elkarlanean oinarrituko gara. Denon partaidetza bermatuko dugu, eta guztion eskubide eta betebeharrak zehaztuko dira.

- **Pertsonaren garapen integrala: hezkuntza emozionala**

Gure ikasleen garapen osoa bilatzen dugu; hau da, adimen, sozial, emozio, moral eta gorputzaren arlokoa, betiere bizitzan koherentziaz eta orekaz moldatzeko beharrezkoak diren kompetentziak lantzen .

### 3.1. Helburuak

---

Aurreko puntuan aipatutako printzipioetan oinarrituta, hona hemen LAS VIÑAS eskolak bere Hezkuntza Proiektuan proposatzen dituen helburuak:

- Euskara, eskolako esparru guztietan (jangelan, kirolean, eskolaz kanpoko jardueretan, etab.) komunikazio-hizkuntza izatea.
- Ikasle guztiengan ikasteko nahia sustatzea, haien autonomia eta ahalmenak garatuz.
- Teknologia berrien (IKT) erabilera areagotzea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan.
- Errespetuzko giroa sortzea ikasle eta Hezkuntza-komunitateko kide guztien artean.
- Ikasle guztien egiazko inklusioa bultzatzea aniztasunari erantzun anitza ematen.
- Guztientzako lan-giro atsegina lortzea.
- Ikasleen garapen emozionala bultzatzea, hazteko eta pertsona-arteko harreman positiboak eraikitzeko trebetasunak landuta eta erabaki pertsonalak modu arduratsu hartzeko gaitzea, beren zentzumen kritikoa garatuz

## 4.1. Curriculumaren esparrua

---

### Metodologia-aukerak

Aurreko atalean proposatutako helburuak lortzeko zenbait oinarri metodologikoak eta pedagogi estrategiak gogoan hartuko ditugu.

➤ Oinarri metodologikoak:

- Indibidualizazioa, aniztasunaren trataeran batez ere.
- Metodologia aktiboa. Umeen interesetatik abiatuta landuko dira ekintza guztiak.
- Gure eskolak ikasleen sormena, esperimentazioa eta partaidetza praktikoa garatzen dituzten ekintzei arreta eta indar berezia emango die.

➤ Pedagogi estrategiak:

- Ikasleak dira, beraien ikasketa prozesuko protagonistak eta irakasleak beraien interesak bultzatu eta jakingura sustatu behar dutenak.
- Euskara da gure hizkuntza eta baita gure kulturaren ardatza ere; beraz, ikasketa hizkuntza izateaz gain harremanetarako hizkuntza izango da.
- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak garrantzi handia du: ikasleak ikasten duenak bere bizitzarako baliagarria izan behar du.
- Eskola pertsona bakoitzaren egoeratik abiatuko da bere garapena eta heldutasuna lortzeko.
- Eskola anitza da, beraz, gizarte demokratiko bati dagozkion baloreak bultzatuko ditu (parte-hartzea, elkartasuna, errespetua ... )
- IKTetarako prestakuntza eta erabilpena funtsezkoak dira bizi garen garai eta teknikei egokitzeko.
- Eskola ikerketa gunea da, non metodologia desberdinetan oinarritutako pentsamendu zientifikoa lantzen den.
- Elkarbizitzarako beharrezkoa da harreman arauak zaintzea, norberaren ideiak defendatuz, jarrera tolerantzia bultzatuz, eta garbi izanez besteekiko errespetua norberaren nahien gainetik dagoela. (Elkarbizitza, Bizikidetzak)
- Taldeko lana eta lan kooperatiboa bultzatuko ditugu, baita ere adin desberdinetako ikasleen arteko elkar trukaketak.

### Ebaluazioa

Ikasleen ikaskuntza prozesuaren ebaluazioa orokorra, banakakoa, eta etengabekoa izango da:

- Banakakoa: ikasle bakoitzaren eta guztien garapena jasoko duena eta hezkuntza prozesuaren jarraipenerako ereduak ezarriko ditu.
- Etengabekoa, eskolaratze prozesu osoan eginda
- Orokorra: pertsonaren osotasuna kontuan izanda eta prozesuan parte hartzen duten guztien iritziekin.

Beraz, ebaluazioa prestakuntzarako, orientatzeko eta hezkuntza-prozesua zuzentzeko oinarria izango da.

## Ebaluazioaren oinarrizko erreferenteak:

1.- Etapako irakasle-taldeari dagokio, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako curriculumak finkatzen diren Dekretuetan xedatutako helburuak eta curriculum-edukiak testuingurura eta ikasleen ezaugarrietara egokitzea.

2.- Ikaskuntza-prozesuaren ebaluaziorako oinarrizko erreferenteak honako hauek izango dira:

- a) Etapako edo hala badagokio ziklo desberdinetako helburu orokorrak.
- b) Esperientzien eremuetako helburu orokorrak.

3.- Eskolako irakasle-taldeak, bere curriculum-proiektuan ebaluaziorako irizpideak eta jarraibideak proposatu behar ditu, modu honetan ziklo bakoitzean izandako bereganatze-maila eta gaitasunen garapena baloratu ahal izateko.

4.- Ikaskuntza-prozesuaren balorazioa kualitatiboki adieraziko da, haurrek egindako aurrerapenak azalduz, eta hala badagokio, izandako errefortzuak eta egokitzeko neurriak ere azalduz.

## **Hezkuntza-eskaintza**

- Eskola euskalduna: Las Viñas HLHI D ereduko ikastetxe publikoa da.
- Eskola parte-hartzaile, demokratiko eta plurala.
- Eskola irekia: bakoitzaren pentsaera, sinesmena eta aniztasuna bermatuko duena.
- Bere inguruan errotuta:
  - herriko erakunde eta kultur taldeek antolatutako jardueretan parte hartzea sustatzen duena.
  - gure kultura eta tradizioari lotutako jai eta ekintzetan parte hartzen duena (inauteriak, Olentzero...)
- Aniztasunari erantzuna ematen diona, indartze neurriak eta behar diren giza baliabideak eskainiz gure ikasleak dituzten eskubideak bermatzeko.
- Eskola kohezitzailea eta hezkidetzarekin konprometiturik.



## **Aniztasunari erantzuna**

Aniztasunari erantzutea, haur bakoitzaren motibazioei, beharrei, interesei eta ezaguera-estiloari egokitutako erantzuna ematea da.

Ikasle bakoitzak bere gaitasun, garapen-erritmoa eta ezaugarriak ditu. Beste aldetik, gure ikasleriaren jatorri sozial, ekonomiko eta kulturala oso ezberdinak dira. Eskolaren betebeharra da egon litezkeen abiaburuko aldeak orekatzea. Horretarako, ikasleek garapen orokor eta harmonikoa izan dezaten ahalbideratuko duten hezkuntza-esperientziak, esperientzia kulturalak, teknologikoak ... eskaini behar ditu.

Aniztasunari erantzuna emateko, neurri ezberdinak hartzen ditugu:

- gela eta talde-banaketa (euskara, irakurketa, matematika..) jarraipen estuagoa bermatu ahal izateko.
- errefortzu gela barruan edota, beharrezkoa denean, gelatik kanpo.
- moldaketa kurrikularrak.
- Beste erakundearekin elkarlana ( berritzegune, OMZ, Aldundia...)

## **Orientabidea eta tutoretza**

Tutoretza-lanaren helburua da, ikasleak bere burua ezagutu eta onar dezala, sozializazio-prozesua hobea dezala, erabakitzen eta ikaskuntza-arazoak konpontzen ikas dezala, eta bere proiektu pertsonalaren protagonista senti dadila.

Tutore taldeari dagokio tutoretza plana egitea eta garatzea aholkulariak eta zikloko koordinatzaileak aholkatuta. Irakasleak, konfidantza eta ziurtasuna eman, ikaslea ezagutu behar du eta berengan konfiantza jarri. Ikasle guztiei jo muga zabalak eta aukera handiak dituztela transmitituko die, ikasteko gai direla sentiaraziz.

Tutoretza planak taldean tutoretza-orduan garatu beharreko curriculumeko orientazio-edukiak antolatzen ditu. Horrez gain, tutorearen esku-hartzea sistematizatzen du, ikasleen banakako eta talde-jarraipeneko hainbat lan eremutan, familiekin izan beharreko harremanetan, eta irakasleekin eta kanpoko beste eragile batzuekin dagoen koordinazioan.

## **Hizkuntzen erabilera eta tratamendua**

- Ikasleak eguneroko komunikazio egoera errealetan jarriko ditugu hizkuntzaren erabilgarritasun eta funtzionaltasunaz jabe daitezen.
- Euskararen erabilera eta normalkuntza ardatza izango da pedagogia, metodologia eta antolaketa arloan hartzen diren erabakietan.
- Etapa amaieran, ikasleek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak menderatzea eta atzerriko hizkuntza bat (ingeleza) ulertu eta hitz egiteko oinarritzko maila lortzea bilatuko dugu.
- Gurasoengan euskararekiko motibazioa landuko dugu.
- Hezkuntza komunitateko partaide guztien arteko hizkuntza euskara izango da: (jangela, kirola eta eskolaz kanpoko ekintzak, goizeko gela).

- Euskararen zabalkuntza eta normalizazioa sendotzen duten jarduerak guztietan parte hartuko dugu.
- Ikastetxe, erakunde eta Administrazioaren arteko harremanak euskaraz izango dira.
- Euskal kulturarekin lotutako jarduerak bultzatuko ditugu eta beraietan parte hartzerantz animatuko ditugu eskola komunitateko partaide guztiak.

### **Prestakuntza eta berrikuntza**

Hezkuntza sistemarako irakasleek konpetentzia profil egokia eduki behar dute. Eskolak, posible denean eta zentroko funtzionamendua oztopatu gabe, Berritzeguneak eskaintzen dituen mintegietara parte hartzeko aukera ematen du.

Bestetan, formazio hori zentroan bertan jasotzeko aukera eskatuko da, lantzen dugun Proiektuaren beharretara egokitzeko, irakasleriaren formazioa ezinbestekotzat jotzen dugu eta.

## 4.2. Antolamenduaren esparrua

---

Gure ikastetxearen antolamendua eta kudeaketa, alde batetik, Hezkuntza Proiektu honetan hartutako hezkuntza-printzipioei, irizpideei eta helburuei lotuko zaizkie.

Bestetik, Euskal Eskola Publikoaren Legeak ezartzen dituen arauak jarraitzen ditu, baita Hezkuntza Sailaren ikasturte hasierako jarraibideak ere.

Aurreikusitako helburuak lortzeko honako kudeaketa tresnak ditugu:

➤ Dokumentuak:

- **Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua** (IHP), non ikastetxearen ezaugarriak eta helburu orokorrak zehazten ditugun.
- **Ikastetxeko Curriculum Proiektua** (ICP). Honen helburua ikastetxeak dituen hezkuntza xedeak zehaztea da.
- **Ikastetxeko Urteko Plana** (IUP). Bertan eskolaren egitura zehazten da urte bakoitzerako, baita kudeaketa plana eta urteko helburuak ere.
- **Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudia** (AJA), bertan Gobernuako organoak, parte hartzea, elkarbizitza arauak eta ikasleen eskubide eta zereginak zehazten dira.

➤ Ikastetxeko Organoak:

- **OOGa** da LAS VIÑAS HLHiko kudeaketan arduradun nagusia. Eskola bizitzari dagozkion funtsezko erabakiak hartzen ditu eta ikastetxearen autonomiaren esparruan funtzionamenduaren arduradun gorena da. Gutxienez, hiru hilean behin biltzen da.
- **Klaustroa**, ikastetxeko irakasle guztiak partaide diren organoa da. Lan teknikoa eraginkorragoa izan dadin, Zikloen egituraren oinarritutako antolabide eredu bat aukeratu dugu. Bertara biltzen dira irakasleak, haien lana bideratzen eta sustatzen ahaleginak egin behar dituzten Koordinadoreen ardurapean.
- Gure ikastetxeko eguneroko funtzionamenduaren oinarria **batzorde pedagogikoa** da. Hor, zuzendaritzaren gidaritzapean antolatzen dira batzarrak. Astean behin batzartzen da eta bertan ziklo guztietako ordezkariak dagoenez, informazioa emateko eta erabakiak hartzeko erabiltzen da.
- **Zuzendaritza Taldea** eguneroko kudeaketaz arduratuko da.
- **Gurasoen elkarte**a. Irakasle guztien gurasoak izan daitezke bazkide eta, honen bidez, hezkuntza komunitatean parte hartzeko aukera zabala dute.

Hezkuntza egokia lortu ahal izateko familien eta eskolaren arteko lotura beharrezkoa da. Familiek beren seme- alaben irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren garapenez informaturik egon behar dute. Horretarako ondorengoak erabiliko dira: bilerak, elkarrizketak, informeak, web orria eta ikasturteko hasierako familientzako gida.

Hau guztia zehaztapen handiagoz Urteko Plan barruan agertzen da.

## 5. Indarraldia eta mantentzea

---

IHP dokumentu bizia denez bere egite prozesua dinamikoa da eta ondorioz, berrikusteari zabalik dago eskolak izango dituen beharren arabera.

Beharrezkotzat jotzen denean, OOG-k onartuko ditu egokiak izango diren aldaketak hezkuntza prozesua eta eskolaren helburuen arteko alderik ez egoteko.